

## **Ramiro González: "Arabako Errioxak aurrera ateratzeko duen gaitasunean sinesten dut"**

*Diputatu nagusia Casa Primicia upategian izan da gaur, nekazariarentzat oso zorrotza izaten ari den mahats-bilketan*

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 1a.** Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusia Guardian izan da gaur, Casa Primicia upeltegiarekin batera mahats-bilketa egiten. Foru agintari nagusiak bertatik bertara ikusi ahal izan du nola eboluzionatzen duen kanpainak. Garai hori oso zorrotza da, baina euriteek eta kanpoko hainbat faktorek are konplexuagoa egiten ari dira. Uzta hori, gainera, ardoaren merkaturatzeak bizi duen egoerak baldintzatzen du, baina Gonzalezek argi dauka: "Sektoreak aurrera egiteko duen gaitasunean sinesten dut, ahalegin eta sakrifizioarekin, beste batzuetan erakutsi duen bezala. Arabako Errioxak zailtasun ugari gainditu ditu eta horretan jarraituko du".

"Argi dago ardoaren sektorearentzat une kezagarrian gaudela. Askotan baloratu dugu honaino ekarri gaituen bidea, baina une honetan premiazkoena da errealitate horri buelta ematen lagunduko diguten neurriak identifikatzea, egoeraren arabekoak eta egiturazkoak", azaldu du diputatu nagusiak.

Iker Madrid Casa Primiciako arduradunak eta Noemí Aguirre Nekazaritzako foru diputatuak lagunduta, Ramiro González Laguardiako udal mugarteko hainbat lursailetan ibili da. Bertan egiaztatu ahal izan duenez, nahiz eta aurreko aldietan baino mahats gutxiago bildu, lana zehatza eta neketsua da. "Kalitate-maila handienak lortzeaz ari gara beti, horiek baitira egoera zailtan merkatuan hobekien defendatzen diren ardoak. Arabako Errioxak, bertako nekazariak eta upategiak baldintza eta balio guztiak betetzen dituzte munduko kalitateko ardoak egiteko. Eta zaila bada ere, ezin dugu bide hori utzi, baita mahatsa jasotzen ez dizutenean edo prezio duinean ordaintzen ez dutenean ere". "Merkatuak zorrotzak eta krudelak dira aldi berean, baina uste osoa dugu susperraldia sustrai horiei eutsita eta eskualdeak ezbeharrak gainditzeko dituen aukeretan sinetsita iritsiko dela. Zume guztiak ditugu horretarako, ez baikara ardo-fabrikak, denak ez digu balio, eta kasu honetan Primizia Etxea horren adibide bikaina da. Ale bakoitza begiratu botila bakoitza ezagutzeko".

Gonzalezek sektorean duen konfiantza berretsi du, eta egoera hori gainditzeko, "Arabako Foru Aldundiak eskualdeari laguntzen jarraituko du, bai aldi baterako dirulaguntzekin, bai egiturazko neurriak dituzten beste erakunde batzuekin estrategia partekatua ezarriz, sektoreko ordezkariak eskatzen diguten bezala. Eta bereziki garrantzitsua da, kontsumoaren jaitziera-uneetan, Arabako Errioxako ardoen merkataritza- eta sustapen-ekimenak babestuz, batez ere euskal merkatuan".

"Ez da erraza izango, ezta azkarra ere, baina eskualdeak asmo eta ideia argiekin lortuko du, mahastiek islatzen duten erresilientzia eta sustraitzea erakutsiz", gaineratu du.